



*Bigarren Lehendakariordea eta Lan eta Enpleguko Sailburua
Vicelehendakari Segunda y Consejera de Trabajo y Empleo*

**AGINDUA, 2021EKO URTARRILAREN 25EKOA, BIGARREN LEHENDAKARIORDE
ETA LAN ETA ENPLEGUKO SAILBURUARENA. HONEN BIDEZ BERMATZEN DA
IKASTETXE PUBLIKO, ITUNDU ETA PRIBATUETAKO JANTOKIETARAKO
AZPIKONTRATATUTAKO ZERBITZU-ENPRESEK KOMUNITATEARI EMATEN
DIZKIOTEN FUNTSEZKO ZERBITZUEI EUTSIKO ZAIELA**

ELA sindikatuak greba deitu du 201eko urtarrilaren 27 eta 28 egunetarako, lanaldi osoan, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publiko, itundu eta pribatuetan eskol-jantokietan eta eskola-garraioan azpikontratatutako zerbitzuak egiten dituzten enpresentan lan egiten duten langileentzat.

Deialdia egin dutenen esanetan, grebak honako helburu hauek ditu: «*Ikastetxe publiko, pribatu eta itunduetako jantoki-zerbitzu eta eskola-garrio segurua eta adostua aldarrikatzea, zerbitzuak ematen dituzten pertsonen osasuna babestea, bai eta enpleguari eta lan-baldintzei eustea ere, informazioa falta delako eta langileen legezko ordezkariekin kontsultarik egin ez delako langile horiek beren lanpostuetara itzultzeari dagokionez.*» Halaber, honako hau ere lortu nahi dute: «*Hezkuntza Saila behartzea sektoreko erakunde sindikalekin benetako negoziazio-prozesu bati ekin diezaion, eskola-jantokietako eta eskola-garraioko langileen baldintzak negoziatzeko eta adosteko, bai segurtasunari dagokionez, bai enpleguari edo lanari dagokionez.*».

Espainiako Konstituzioaren 28.2 artikulua langileen greba egiteko eskubidea onartzen du, langileek beren interesak defenda ditzaten, horixe baita egungo zuzenbide-estatu sozial eta demokratikoak oinarri dituen funtsezko eskubideetako bat. Konstituzioak, beraz, berdin babesten ditu greba-eskubidea eta beste zenbait eskubide garrantzitsu, hala nola bizia, osotasun fisikoa, osasuna, hezkuntza, lana... Hain zuzen, Konstituzioak bete-betean babesten ditu, bai eskubide horiek guztiak, baita greba egiteko eskubidea ere.

Beraz, greba egiteko eskubidea erabiltzeak talka egin dezakeenez herritarren gainerako oinarrizko eskubideekin, Konstituzioaren 28. eta 37. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik, ezinbestekoa da neurri egokiak hartzea komunitatearentzako funtsezko zerbitzuei eutsiko zaiela ziurtatzeko, ez dadin edukirik gabe geratu gatazkan dauden oinarrizko eskubideetako bat bera ere.

Edonola ere, aurreko premisa ondorioztatu ondoren, nabaria da oinarrizko eskubideak murriztuko dituen neurri orok proportzionaltasun-printzipioa zorrotz bete behar duela, eta, hori lortzeko, hiru betekizun edo baldintza bete beharko ditu neurriak: hori aplikatuz gero proposatutako helburua lortu ahal izatea, edo «egokitasun-judizioa»;

kasua aztertu ondoren helburu hori eraginkortasun berdinarekin lortzeko neurri apalagorik ez dagoela ondorioztatu izana, edo «premia-judizioa»; eta, azkenik, neurria edo konponbidea orekatua edo neurtua izatea, haren aplikazioaren ondorioz guztion intereserako onura edo abantaila gehiago eragiten direlako auzian dauden beste ondasun edo balioetarako eragiten diren kalteak baino, hau da, «proportzionaltasun-judizioa, zehazki ulertuta». Gai horri buruz hainbat aldiz erabaki du Konstituzio Auzitegiak, honako epai hauen bitartez, besteak beste: 122/1990, 123/1990, 8/1992, eta 126/2003.

Erabaki horietatik ondorioztatu behar dugu gizartearentzako ezinbesteko zerbitzuak emango direla ziurtatzeak mugatu egiten duela grebarako eskubidea baliatzeko aukera, eta horretarako nahitaezkoa eta ezinbestekoa dela interes desberdinak kontuan hartuta zuhurtasunez jokatzeko. Hori guztia dela-eta, ziurtatze horrek berme gisa jardun behar du, eskubide kontrajarrien ezinbesteko koordinaziotik abiatuta, betiere ulertuta grebalarien eskubidea mugatu beharko dela —amore eman, Konstituzio Auzitegiaren hitzetan—, baldin eta haien interesak grebaren bidez babesteak komunitateari edo funtsezko zerbitzuaren hartzaileri zein zerbitzua jasotzeko eskubidearen titularrari eragiten dion edo eragin liezaiokeen kaltea larriagoa bada grebalarien erreibindikazioek edo eskakizunek arrakastarik ez izateak eragingo lukeena baino. Hori guztia dela-eta, aurrekoa kontuan hartuta eta greba-deialdi honen aurrean, grebaren deialdiak dituen ezaugarri zehatzak hartu beharko dira kontuan.

Kasu honetan, ebazpen honen hasieran azaldu gisan, 2021eko urtarrilaren 27 eta 28 egunetarako deitu den greba da, hau da, bi lanaldi eta eskola-egun jarraituri eragiten dio, eta EAEko ikastetxe publiko, itundu eta pribatuetan eskola-jantoki eta eskola-garraioan azpikontrataturako zerbitzuak ematen dituzten enpresetako langileak dira grebara deitu direnak.

Eskola-jantokiei dagokienean, greba-deialdiak honako hauei eragingo die: 75.000 ikasle ingururi, guztira 512 jantokiri, eta horietan lan egiten duten gutxi gorabehera 3.816 begiraleri. Hezkuntza-etapan arabera banaketa honakoa da:

Mailak	Jantokira doazen ikasleak	Begiraleak
2 urte	4.100	550
HH (4 eta 5 urte)	19.207	1.400
LH	45.745	1.600
DBH	6.384	200

Gainera, ikastetxe itunduetako eta pribatuetako jantokietan ukitutako ikasleak gehitu behar zaizkie datu horiei.

Zerbitzu hauek ematen dira: batetik, menuak prestatu, banatu eta officeko lanak egitea, eta, bestetik, jantokiko begirale-zerbitzua ematea. Nahiz eta kolektibo bakoitzak egiten dituen zereginak berdinak izan hezkuntza-maila guztietarako; aldea dago ikasleek

adinaren arabera behar duten arreta-mailan (zenbat eta gazteagoa izan, orduan eta arreta-maila eta laguntza handiagoa behar dute) edo beste inguruabar batzuetan, hala nola hezkuntza berezian. Kolektibo horiek integratzeko gaur egungo joeraren barruan, badira hezkuntza bereziko gela egonkorrak eta gela «arruntak». Gela horietan eskolatzen diren ikasleek desgaitasuna izaten dute edo mendekotasun maila altuak; laguntza orokorra behar dute, arreta oso indibidualizatua eta baliabide trinkoak eta jarraituak. Hori guztia kontuan hartu beharko da gutxieneko zerbitzuak ezartzean.

Bestalde, besteak beste, bizitzeko, osotasun fisiko eta moralerako, hezkuntzarako eta lanerako eskubide konstituzionalak, Konstituzioaren 15., 27. eta 35.1 artikuluetan eta Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioaren 18. artikuluan jasotzen dira. Espainiako Estatuak honen bidez berretsi zuen: 1990eko azaroaren 30eko berrespen-agiria, Haurren Eskubideei buruzko 1989ko azaroaren 20ko Konbentzioarena, Nazio Batuen Batzar Nagusiak onartua. Botere publikoek bermatu behar dituzte eskubide horiek, prebentzio-neurrien eta beharrezko zerbitzuak emango direla ziurtatzeko neurrien bidez, eta, beraz, grebarako eskubidearen bidezko egikaritzaren aurrean ezin dira babes egokirik gabe geratu. Babes horrek, bestalde, ezin du inola ere greba-eskubidea edukiz hustu, Konstituzio Auzitegiaren doktrinari jarraikiz beraren aplikazioa betiere mugatua izan behar baita.

Zerbitzu horiek funtsezkoak dira, ukitutako eskubideak ere funtsezkoak direlako —hezkuntza eta haurren eta nerabeen babes eta garapen integralarekin zerikusia duten eskubideak—. Horrela jasotzen da Estatuaren araudian: 1/1996 Lege Organikoa, urtarrilaren 15ekoa, Adingabearen Babes Juridikoari buruzkoa eta Kode Zibila eta Prozedura Zibilaren Legea partzialki aldatzen dituen. Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan, berriz, hemen jasotzen da: 3/2005 Legea, otsailaren 18koa, Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babestekoa. Jurisprudenzia berretsitako alderdiak, Auzitegi Gorenaren aurreko aginduetan behin eta berriz adierazitakoak: Auzitegi Gorenaren 1994ko maiatzaren 20ko epaia, eta Auzitegi Gorenaren 2009ko apirilaren 14ko epaia. Epaia horietako lehenak honako hau ezartzen du: «ikasleei eguerdian bazkaria erabat kentzeak osasunerako eta hezkuntzarako eskubide konstituzionalak urratzen ditu». Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak, lurralde-deialdien aurrean, funtsezko izaera hori aitortu du (ikus 2010eko abenduaren 22ko eta 2011ko urtarrilaren 13ko epaiak).

Espainiako Konstituzioaren 15. eta 43. artikuluetan jasotzen dira bizitzarako eta osotasun fisiko eta moralerako konstituzio-eskubide horiek —osasunerako eskubidearekin batera—, eta garrantzi berezia dute gaur egun. Ezin da alde batera utzi deitutako greba COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren eta osasun- eta gobernu-agintariak hartutako neurri eta gomendioen erdian egingo dela. Horrela, kontuan hartu behar da Lehendakariaren abenduaren 10eko 44/2020 Dekretuak, testu bakar batean bateratzeari eta berariazko prebentzio-neurriak eguneratzeari buruzkoa, ezarritakoa betetzen dela, alarma-egoeraren deklarazioaren esparruan, eboluzio epidemiologikoaren ondorioz eta SARS-CoV-2 sistemak eragindako infekzioen hedapenari eusteko, bere eranskinaren 7. puntuan, Hezkuntza-, prestakuntza- eta

ikerketa-jarduerari buruzkoa, adierazten duenean hezkuntza jarduera orok, edozein etapa eta mailatan *“eranskin honetan jasotako arauen arabera garatuko da, eta, nolana ere, 2020-2021 ikasturtean Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan Koronavirusaren (SARS-CoV-2) aurka jarduteko Hezkuntza Sailak egindako protokolo orokorraren arabera”*; bai eta *Osasun sailburuaren 2020ko uztailaren 28ko AGINDUAK* ezartzen duena ere, COVID-19 delakoak eragindako osasun-krisiari aurre egiteko beharrezko prebentzio-neurriak buruzko 2020ko ekainaren 18ko AGINDUAREN eranskina aldatzen duena. AGINDU HORREN 5. PUNTUAK *“hezkuntza-, prestakuntza- eta ikerketa-jarduerari buruzko neurriak”* atalean jasotzen du *“Hezkuntza, prestakuntza- eta ikerketa-jarduera presentzial guztiak prebentzio-, osasun- eta higiene-arauak errespetatuz egingo dira, babes-arauak eta pertsonen arteko distantzia errespetatuz, eta maskarak erabiliz”*.

Bestalde, Hezkuntza Sailak hainbat dokumentu egin ditu, zeinak etengabe berrikusten baitira, eta, dokumentu horietan, ikastetxeetako SARS-COV-2 koronabirusaren aurreko neurriak eta gomendioak zehazten dira. Horien artean, izaera orokorreko honako hau dago: *«2020-2021 ikasturtearen hasierarako jarduketako protokolo osagarria eta ikastetxeetan COVID-19 kasuak agertzen direnerako jardunbideak»*; eta, berariaz, eskola-jantokietarako, beste hau dago: *«Eskola-jantokietan COVID-19aren aurrean aplikatu beharreko prebentzio-neurriak»*, 2020ko irailaren 22koak. Bertan, gogoeta orokorren artean, hauxe ezartzen da: *«espazio horiek erabiltzean, bizikidetzatalde egonkorrak mantenduko dira, talde horiek ez daitezela nahasi eta haien arteko segurtasun-distantziari eutsi dakion. Gainera, ikasleek leku berean eseri beharko dute egunero mahaian, kutsatzeko aukera murrizteko eta kontaktuen jarraipena errazagoa izateko.»*

Irailaren 15erako hezkuntza-sektorean deitu zen grebaren harira (eskola-jantokiei ere eragin zien), pandemiaren egoerari buruzko txostena eskatu zitzaion Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Osasun Publikoko Zuzendaritzari. Txostenean azaltzen zen *«2020-2021 ikasturtearen hasierako jarduketako protokolo osagarria, eta ikastetxeetan COVID-19 kasuen agerpenaren aurreko jarduketak»* izenekoa jasotzen ziren neurriak greban ere bete behar zirela, eta ondorioetan ezartzen zuen Hezkuntza Sailean indarrean dauden jarduera-protokoloetan eta ikastetxeetako kontingentzia-planetan COVID-19ari aurre egiteko aurreikusitako prebentzio-neurriak eusteko behar adina langile egon beharko zirela, betebeharrak hauek kontuan hartuta:

- Talde egonkorrak mantentzea
- Pertsona-fluxuak antolatzea
- Distantziak mantentzea
- Maskarak erabiltzen direla zaintzea
- Eskuak garbitzea eta instalazioak garbitu eta desinfektatzea
- Kasuak kudeatzea

Azken puntu horri dagokionez, ikastetxeek behar adina informazio eta pertsona izan beharko dituzte COVID-19 kasu positiboen kontaktuen azterketa egin ahal izateko, eta horren ondoriozko jarduerak aplikatzeko. Ikastetxean egon beharko dira ikastetxeko zuzendaria eta COVID-19ari lotutako gaien arduraduna.

Hezkuntza-sektorean 2020ko irailaren 15erako deitu zen greba horrez gainera, 2020ko urriaren 21, 27 eta 29 egunetarako ikastetxe publiko eta itunduetan eskola-jantoki zerbitzuaren enpresa azpikontraten eremurako deitu zenarekin batera, beste batzuk ere izan ziren aspaldi (azkenak 2010. urtean egin ziren, urtarrilaren 26an eta 28an; martxoaren 9an eta 11n; eta martxoaren 15ean, 17an, 24an eta 25ean. Greba horien ondorioz, gutxieneko zerbitzuei buruzko aginduak atera ziren, 2010eko urtarrilaren 25ekoa, martxoaren 5ekoa eta martxoaren 11koa, hurrenez hurren). Funtzio, lurralde eta denbora aldetik eta eragindako pertsonen kolektiboen aldetik —enpresak, greba egin duten pertsonak eta ikasleak— antzekoak dira, baina ez dute eratzen greba honetan gutxieneko zerbitzuak finkatzeko premisarik —doktrina konstituzionalak debekatutako inferentzia—. Alabaina, aurrekari horiek aukera ematen dute egiaztatzeko deialdi horietako gutxieneko zerbitzuek ezarritako babesek Konstituzioak babesten dituen eskubide eta ondasunetan —grebarakoa barne— eragin dituzten ondorio positiboak edo negatiboak, agindu honek babestu nahi dituenak.

Kontuan hartu beharreko beste kontu bat da deialdia ohiko lanaldietan egiten dela, eta horietan ikasleen ohiko bertaratzea aurreikus daitekeela, beste lanaldietan ez bezala, horietan hezkuntzako profesionalen grebak edo greba orokorrak egiten baitira.

Gutxieneko zerbitzuak zehazteko orduan, kontuan hartu beharko dira, halaber, eskola-jantokien gizarte- eta hezkuntza-izaera; jantokirik gabe geratzen diren ikasleek behar duten arreta integrala; grebaren lurraldetasuna, EAEko ikastetxe publiko eta itundu guztiei eragiten baitie, eta denbora-eremua: bi lanaldi jarraituri eragingo dio aste berean.

Halaber, aurreko deialdietan emandako Funtsezko Zerbitzuen Aginduetan ohikoa den bezala, hezkuntza-etaparen arabera desberdintasunak ezarri behar dira.

Beraz, jantoki-zerbitzua bermatuko da: erraz egiteko moduko elikagaiak prestatuko dira, bai ikastetxeetan bertan, bai ikastetxeek azpikontrataturako enpresen sukalde nagusietan. Azken kasu horretan, bermatu egin beharko da haien banaketa. Horretarako, egokitzat jotzen da greba honetan gutxieneko zerbitzu gisa ezartzea sukaldeko langileen % 10 egon behar duela.

Bestalde, begiraleek egiten dituzte zaintza eta laguntza jardueri dagokienean, argi dago funtsezkoa dela bi eta hiru urteko hurren eta premia bereziak dituzten ikasleen jantoki-zerbitzua artatzea; kolektibo bereziki kalteberak dira, eta modu pertsonalizatuan eman behar zaie elikadura espezifikoa eta egokia. Oinarrizko eskubideak bermatzeko gutxieneko zerbitzuak finkatzeko arrazoiak dira: adin txikikoak direla (2 eta 3 urte), autonomia falta dutela eta arreta eta zaintza handia eta integrala eman behar zaiela. Horretarako, sukaldeko langileen, office-langileen eta begiraleen laguntza ezartzen da gutxieneko zerbitzu gisa, bertaratze-ratio hauetan: 2 urteko

taldean, bederatzi hurreko talde bakoitzeko begirale bat egon behar da, eta, 3 urteko taldean, hamabost hurreko talde bakoitzeko begirale bat.

Aurreko greba-deialdietan gertatutakoaz gain, Haur Hezkuntzako kolektiboaren barruan —2 eta 5 urte bitarteko haurren hezkuntza da, eta, EAEn, jantoki-zerbitzuaren erabiltzaileen kopurua 19.000 baino gehiagokoa da—, 4 eta 5 urteko hurrek mendetasun-maila handia dute. Haur horiek arreta egokia jasotzen ez badute (normalean arreta handia behar izaten da), ez dute jaten, edo, jatekotan, ez dute egokiro jaten, higienerari eta osasungarritasunari dagokienez; beraz, zaintzarik eta arretarik ez badago, arriskuan jartzen da osasunerako oinarritzko eskubidea, baita osotasun fisikorako eskubidea ere.

Ondorioz, kolektibo hori babesteko, begiraleen kategorian gutxieneko zerbitzu batzuk ezarri behar dira, eta, horretarako, langileen lan-kargak eta hurrek behar duten arreta hartu beharko dira kontuan.

Horretarako, egokitzat jotzen da greba honetan gutxieneko zerbitzu gisa ezartzea begiraleen % 10 egon behar duela.

Muntaketari, mahaien bilketari eta garbiketari dagokienez, Hezkuntza Sailak egindako dokumentu honetan ezarritakoa aplikatuko da: «Eskola-jantokietako COVID-19aren aurkako prebentzio-neurriak» izeneko dokumentua, 2020ko irailaren 22koa, Hezkuntza Sailarena. Bertan, higie-neurriei buruzko ataletan, honako hau ezartzen da: *Talde egonkor batzuek mahaia partekatu behar badute, talde egonkorren artean 1,5 m-ko segurtasun-tartea mantendu beharko da.* Era berean, garbiketa-lanei dagokienez, hauxe jasotzen da:

«3. Eskolako jantokiari lotutako instalazio guztiak maiz garbitu, desinfektatu eta aireztatuko dira. Arreta bereziz desinfektatuko dira gainazalak, ateen heldulekuak, altzariak, konketak, lurzorua eta abar.

Bereziki, otordu-txanda batetik bestera, ukipen-gainazalak eta -instalazioak (mahaiak, aulkiak...) garbitu eta desinfektatu behar dira. Otordu-txanda bat amaitu ondoren eta hurrengo sartu aurretik, ikasleekin kontaktuan egon diren gainazal nagusiak garbitu eta desinfektatuko dira, eta jangela-esparrua aireztatuko da.»

Zeregin horiek betetzeko, garbiketa-zerbitzuan lan egiten duten ohiko langileen ehuneko jakin bat ezarri behar da, benetan neurri horiek bete ahal izateko; hori dela eta, ezinbestekoa da ohiko langileen % 100 agertzea lanera.

Aurretik azaldutako guztia dela bide, eta aintzat hartuta deitu den greba horretan funtsezko funtzioak zaintzen dituen gutxieneko zerbitzurik ezartzen ez bada, grebarekin lortu nahi den helburua baino kalte handiagoak eragin daitezkeela, gobernu-agintaritza honek gutxieneko zerbitzuak ezarri ditu agindu honetan.

Martxoaren 4ko 17/1977 Errege Lege Dekretuak, lan-harremanei buruzkoak, honako hau xedatzen du 10.2 artikuluan: «greba egiten denean edozein zerbitzu publiko edo onartuta dagoen eta geroraezina den beharriazko edozein zerbitzu eskaintzeko enpresetan, eta larritasun bereziko egoerak daudenean, gobernu-agintaritzak behar diren neurriak hartu ahal izango ditu zerbitzuen funtzionamendua ziurtatzeko» eta «Gobernuak, era berean, horretarako beharrezkoak diren esku-hartzezko neurriak har ditzake».

Konstituzionaltasuna aitortuta duen arau horretan (Konstituzio Auzitegiaren 11/1981 Epaia, apirilaren 8koa [1981\11 KAB]), Konstituzioaren greba-eskubideari buruzko 28.2 artikuluekin bat etorritik (bertan honako hau ezartzen baita: «eskubide horren erabilera arautzen duen legeak beharrezko bermeak ezarriko ditu erkidegoarentzako nahitaezko zerbitzuen mantentzea ziurtatzeko»), gobernu-agintaritzari ematen zaio hainbat motatako berme-neurriak hartzeko eta greba-kasuan nahitaezko zerbitzuei eusteko aukera, eta hori egiteko neurrietako bat da administrazio-ebazpen bidez jarduerari eusteko ezinbesteko gutxienezko zerbitzuak ezartzea eta lan-prestazioa eskaini behar duten langileei haiek bete ditzaten eskatzea.

Horregatik, Lan Harremanei buruzko martxoaren 4ko 17/1977 Errege Lege Dekretuaren 10.2 artikuluan aipatzen den prozedura bideratu da, eta entzunaldia eman zaie idatziz alderdi ukitutuei —sindikatuari, enpresa-elkarteari, enpresei eta Hezkuntza Sailari—, Jaurlaritzaren proposamenaren eragina jasango duten zerbitzuei eta langileei buruzko proposamenak egin ditzaten.

Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioari sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuak, 2. artikuluan, Lan eta Justizia Saila sortu du, eta, 6. artikuluan, lan-harremanen arloko lan-legeria betearazteko eskumena esleitu dio. Bestalde, Xedapen Iragankor Bakarrean ezartzen da Azken Xedapenetatik Lehenengoan aurreikusitakoa gauzatzen den bitartean indarrean jarraituko dutela Jaurlaritzako Lehendakariaren eta Jaurlaritzako sailen egitura eta eginkizunak zehazten dituzten arau organikoak. Beraz, indarrean jarraitzen du apirilaren 11ko 84/2017 Dekretuak, Lan eta Justizia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duenak. Izan ere, sail horren eginkizunetako bat da, ekainaren 11ko 139/1996 Dekretuak emandako eskumenak betetz, Erkidegoaren funtsezko zerbitzuei eutsiko zaiela bermatzeko beharrezko neurriak zehaztea, baldin eta zerbitzu publikoak edo premia aitortu eta atzerazineko zerbitzuak emateko ardura duten enpresei eta erakundeei eragiten badie grebak.

Horregatik guztiagatik, bigarren lehendakariordeak eta Lan eta Enpleguko sailburuak, Eusko Jaurlaritzaren ordezkariak hartuta, honako hau

EBAZTEN DU:

Lehena.- Ikastetxe publiko, itundu eta pribatuetako jantokietan azpikontrataturako zerbitzuak ematen dituzten enpresetan lan egiten duten langileek 2021eko urtarrilaren 27 eta 28 egunetarako, lanaldi osorako deitu den greba-eskubidea baliatu ahal izango dute, baldin eta jarraian adierazten diren gutxienerako zerbitzuak bermatzen badituzte:

1.- Jantoki-zerbitzua bermatuko da: erraz egiteko moduko elikagaiak prestatuko dira, bai ikastetxeetan bertan, bai ukitutako enpresen sukalde nagusietan. Azken kasu horretan, bermatu beharko da janaria ikastetxeetan banatuko dela. Aurreko eginkizunak sukaldeko langileen % 10ek beteko dituzte. Baina % 10 hori pertsona bat baino gutxiago bada, pertsona horrek gutxienerako zerbitzu horiek egin beharko ditu.

2.- Erabili eta botatzeko materiala erabili beharko da, ikasleei janaria emateko.

3.- Muntaketari, mahaien bilketari eta garbiketari dagokienez, bermatu behar da zerbitzu arrunta eta ikastetxeetako Kontingentzia Planetan jasotako gomendioak beteko direla, argitaraturako osasun-gomendioei eta Hezkuntza Sailaren gomendioei jarraikiz. Aipatu ditugun zerbitzu horiek egin ohi dituzten langileen % 100ak egingo ditu (soilik zerbitzu horietan, ez bestelako zerbitzuak), eta soilik, ezinbestekoa den denborarako, eta denbora-tarte hori ezingo da ohiko lanaldia baino luzeagoa izan.

4.- Langile horien lanaldian, ikasleei arreta emateko eta jantokiak irekita mantentzeko, begiraleen ehuneko hauek ezartzen dira, zikloen eta hezkuntza-etapen arabera:

4.1. Haur Hezkuntzako ikasleak (1. zikloa: 2 eta 3 urte):

- 2 urte dituzten haurren ikasgeletan, begirale bat bederatzi bazkaltiarreko talde bakoitzeko.
- 3 urte dituzten haurren ikasgeletan, begirale bat hamabost bazkaltiarreko talde bakoitzeko.

4.2. Haur Hezkuntzako ikasleak (2. zikloa: 4 eta 5 urte):

- Ikastetxeko begiraleen % 10. Baina % 10 hori pertsona bat baino gutxiago bada, pertsona horrek gutxienerako zerbitzu horiek egin beharko ditu.

4.3. Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak: elikadura-beharrak asetzeko ezinbestekoa den gutxienerako begirale-kopurua.

Bigarrena.- 1. Gerta daiteke gutxienerako zerbitzuak betetzeko garaian greba egitera deitutako langileak eta greba egitera deitu gabekoak elkartzea; kasu horretan, agindu honetan finkatutako ehunekoak kalkulatzeko, ohiko moduan lan horiek betetzen dituzten bi kolektibo horietako langileen gutzirakoa hartuko da kontuan. Greba egiteko deitu diren langileen artean, zerbitzu horiek greba ez egitea erabakitzen duten langileek emango dituzte, ahal izanez gero.

2. Langileen ordezkariari entzun eta gero, enpresen zuzendaritzak esleituko ditu langileek bete beharreko eginkizunak. Nolanahi ere, aurreko artikuluan eta indarrean dauden legeetan ezarritako mugak errespetatu beharko ditu.

Hirugarrena.- Agindu honen aurreko apartatueta bildutako gutxieneko zerbitzuak ezin izango dira aldatu horiek egiteko izendatuta dauden langileen aldaketen edo lanuzteen ondorioz. Halakorik gertatuz gero, legez kontraktatzat joko dira eta horiek egiten dituztenak izango dira erantzule, eta erantzukizuna eskatuko zaie indarrean dagoen ordenamendu juridikoaren arabera.

Laugarrena.- Aurreko artikuluetan xedatutakoa gorabehera, greba egiten duten langileen eskubideak, grebari buruzko araudiak aitortzen dituenak, ez dira inola ere murriztuko, ezta grebarako deia egin dutenen eskakizunen izapidetzea eta ondorioak mugatuko ere.

Bosgarrena.- Jakinarazten den egunean jarriko da indarrean agindu hau.

Seigarrena.- Agindu honen berri eman behar zaie interesdunei, urriaren 1eko 39/2015 Legeak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak) 40. artikuluan xedatutako moduan; halaber, ebazpenak administrazio-bidea agortzen duela jakinarazi behar zaie, eta horren aurka administrazioarekiko auzietarako errekurtsioa jarri ahal izango dela Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren dagokion salan, ebazpena jakinarazten denetik kontaktzen hasita 2 hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoaren arabera.

Era berean, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan aurreikusitakoari jarraikiz, honako hau ere jakinarazi behar zaie: agindu honen aurka aukerako berraztertze errekurtsioa aurkez daitekeela lan-agintaritzan, agindua jakinarazi eta biharamunetik kontaktzen hasita hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko urtarrilaren 25ean.

Idoia Mendia Cueva

**BIGARREN LEHENDAKARIORDEA ETA
LAN ETA ENPLEGUKO SAILBURUA**